

Alkartasuna



Alkartasuna Fundazioaren aldizkaria | 2024ko urtekaria | 75 zk.



Estatu berriaren unea

non zer nork

3

Editoriala

Unea da orain

4-7

Elkarrizketa

Estatus berriaren unea

Pello Otxandiano Kanpo eta Eba Blanco de Angulo

8-9

Erreportajea

Basterretxearen giltzarriak. Artea eta kultura, herri baten aberastasun espiritual

Meritxell Elgezabal Intxaurrea

10

Iritzia

Una marca de país

Iñaki Ezkurra Yurrebaso

11

Kronika

Alkartasun Eguna 2024

12

Elkarrizketa

Las emergencias se gestionan mejor desde el territorio

Vicent Marzà Ibáñez

13

Elkarrizketa

Gazteak eta estatus politikoa

Galder Agudo Bezi

14

Kronika

Alkartasuna Sariak 2024

15

Laburrak

alkartasuna

Alkartasuna Fundazioaren aldizkaria

2024ko urtekaria

Portuetxe bidea, 23 | Donostia

D.L./L.G. SS 714/88

Koordinatzailea

Hugo Uruñuela Nicolás

Erredakzioa

Mikel Oraá Díaz de Heredia

Mikel Claver Herrera

Kultura Ministerioak diruz lagundutako jarduera

Actividad subvencionada por el Ministerio de Cultura



Unea da orain

Hamarkadak daramatzagu gure herriarentzat une erabakigarrian gaudela adierazten, eta gaur inoiz baino gehiago sinetsita gaude une hori iritsi dela. Azken hauteskunde zikloan lortutako emaitza historikoez, herri bezala aprobetxatu behar dugun jokaleku politikoan kokatzen gaituzte.

EH Bildu Euskal Herriko lehen indar municipalista da, eta Eusko Legebiltzarrean, 27 eserlekurekin egiten diogu aurre legegaldari, EAJren kopuru berarekin. 75etik 54. Estatus politiko berri bat ezartzeko aktibatu behar den gehiengo parlamentario abertzale bat dago. Zertarako? Inor atzean utziko ez den Euskal Errepublikak ezarri ahal izateko. Hobeto bizitzeko Estatu propioa. Porrot egin duen sistema da Espainiakoa, eta ez du balio herritarren eskaerak asetzeko. Gernikako Autonomia Estatutuaren 45 urte dira eta gobernu bakar batek ere ez du osorik garatu nahi izan. Bide bakarra burujabetza osoa da.

Kataluniako prozesuaren ekintzen bideak, zoritxarrez, frogatzen du Espainiako gobernu batek ere ez duela aitortuko egun batetik bestera Estatuaren plurinazionaltasuna, errealitate eta identitate nazional ezberdinak onartuz. Baina egia da, halaber, orain inoiz baino gehiago, aukera handia dugula prozesu honetan demokratikoki lan egiteko.

Era berean, errealitate soziopolitikoak berresten du defendatu dugun bigarren planteamendua: Euskadik, Nafarroak eta Iparraldeko erritmo ezberdinak eraman behar dituztela prozesu subiranistan. Ezin da denak aldi berean izan, baina mendeetako bide honen amaieran, ziur gaude, estatu propioa duen nazio bat izango garela. Eta prozesuaren amaieraren hasiera orain izan behar da.

Llevamos décadas afirmando que estamos en un momento decisivo para nuestro país, y hoy más que nunca estamos convencidas de que ese momento ha llegado. El último ciclo electoral y de los resultados históricos logrados, nos sitúan en un escenario político que, como pueblo, tenemos que aprovechar.

EH Bildu es la primera fuerza municipalista de Euskal Herria y en el Parlamento Vasco, afrontamos la legislatura con 27 escaños, el mismo número que el PNV. 54 de 75. Hay una mayoría parlamentaria abertzale que se debe activar para implementar un nuevo estatus político. ¿Para qué? Para poder instaurar una República Vasca donde nadie se quede atrás. Un Estado propio para vivir mejor. El español es un sistema fracasado que no sirve para satisfacer las demandas de la ciudadanía. En 45 años de Estatuto de Autonomía de Gernika, ningún gobierno ha querido desarrollarlo en su totalidad. El único camino es la soberanía plena.

La vía de los hechos del proceso catalán prueba desgraciadamente que ningún gobierno español va a reconocer de un día para otro la plurinacionalidad del Estado, admitiendo las diferentes realidades e identidades nacionales que lo conforman. Pero también es cierto, que ahora más que nunca, tenemos una gran oportunidad para trabajar democráticamente en este proceso.

Asimismo, la realidad sociopolítica también confirma el segundo planteamiento que hemos defendido: que Euskadi, Nafarroa e Iparralde, deben llevar ritmos diferentes en el proceso soberanista. No puede ser todos al mismo tiempo, pero al final de este camino de siglos, estamos convencidas de que seremos una nación con Estado propio. Y el principio del final del proceso debe empezar ahora.

Estatus berriaren unea



Eba Blanco de Angulo eta Pello Otxandiano Kanpo elkarrizketaren baitan

Eba Blanco: Hauteskundeen ziklo biribilkaria amaitu da. Beste hauteskunde batzuk etorri bitartean, erreflexiorako tarte lasaiago bat ireki da gure herrian. Inondik inora geldirik egoteko, baizik eta argi luzeak behar dituzten gaiak patxada gehiagorekin lantzeko.

Gure identitatearen egoerari buruzko hausnarketa egiteko tarte, adibidez. Azken hilabetetan etxera heldu zaizkigu hainbat kiroletan ikur arrotzak, euskararen kontrako oldarraldia epaitegietan, ultra eskuinaren ofentsiba, Goardia Zibilaren parada Gasteizko Plaza Berrian U12an... Atzera goaz? Gure identitate komunitarioa arriskuan al dago?

Pello Otxandiano: Zalantzarik gabe. Euskal Herria, gure Herria, bidegurutze batean aurkitzen dela esan izan dugu eta identitate nazionala zeharo ahuldu-ta dagoenaren zantzuak egunero ikusten ditugu. Testuinguru globalean nabaria den neoliberalismoaren porrotak utzitako gizarteak are indibidualistagoak bihurtu gaitu eta, zentzu batean, zerumuga zein proiektu konpartitu eta desiragarri bat marrazte-

ko zailtasunak areagotu ditu. Hor kokatzen da gure herri txiki hau egun. Baina erronka eta aukeraz betetako panorama ere badela uste dut. Herri honek jakin izan du beti, egoerarik zailenetan ere, burua altxatu eta aurrera egiten. Horrexegatik erreparatzen diogu hirugarren eraldaketa nazionalaren beharrari eta berau posible egiteko herri honek badituen baldintza politiko, sozial eta ekonomikoei.

“Badago oinarrizko adostasun bat alderdi politikoen eta herritarren gehiengoak konpartitzen duena: Euskal Herriaren Nazio aitortza eman behar da”



E.B: Lau hamarkada pasata daramatzagu erki-degoko estatutuarekin gora eta behera, oraindik ere transferentziak aldarrikatzen. Zergatik da hau egungo marko politikoa gainditzeko unea?

P.O: Estatuarekin izan behar dugun harremana bir-definitzeko baldintza objektibo nahikoak ditugula uste dugulako. Lehen aldiz Eusko Legebiltzarrean alderdi abertzaleok 54 eserleku pilatzen ditugu. Madrilen ere Estatuaren nazio aniztasunaren inguruko eztabaida emateko leihoa irekia dugu. Egungo marko politikoa gainditzearen beharra Gernikako Estatutuak jasaten duen etengabeko higadurari erantzun bezala ere planteatu behar dugu; izan ere, gure autogobernuak ez du berme nahikorik errespetatua eta bere osotasunean garatua izateko. Horrez gain, testuinguru globalak mahaigaineratzen dizkigun erronkei heltzeko akuilu izan behar du estatus politiko berriak. XXI. Mendeko urte erabakigarrietan sartuak egonik, ez dugu galtzeko denborarik.



E.B: Gu independentistak gara. EAJ baita; abertzalea gutxienez. Gasteizko Legebiltzarrean autodeterminazio eskubidearen aldeko gehiengo garbia dago. Argia da ordezkapen politikoak diona eta jauzia prestatzen hasteko ura badagoela uste dugu. Aldiz, kalean horrelako grinarik ez dagoela diote batzuek. Nola bultzatu dezakegu politikagintzatik eta naziogintzatik ikusita?

P.O: Hirugarren eraldaketa nazionalaz mintzo garenean eremu instituzionala gainditu behar duen prozesu politikoaz ari gara. Instituzioak, Eusko Legebiltzarrak, funtsezko papera jokatzen du borondate demokratikoaren gauzapenerako, baina ez da nahikoa. Herri honetako inteligentzia, akademia, ehun soziala, industrial, ekonomikoa eta gizarte zibila ezinbestekoak dira eman beharreko jauzian. Prozesu herritarraz ari gara eta herritaren bultzadak paper determinantea jokatuko du.

E.B: Behin eta berriz aldarrikatzen duzu herri-ikuspegia, ikuspegi orokorraren beharra. Zertan datza zehazki? Nola gauzatzen da kontzeptu hori egunerokotasunean?

P.O: Herri ikuspegia ezinbestekoa zaigu tamainan erantzuteko. Herri txiki bat gara mundu globalizatu batean eta hori aukera bat da testuinguru nahasi honetan. Baina dugun potentziala guztiz askatze-ko gainditu behar dira ikuspegi konpartimentalizatu eta, maiz, inertzialak. 2025eko aurrekontuetarako egindako proposamen globala horretara dator, politika publikoen eraginkortasuna eta gastu publikoaren efizientzia bilatzera. Garraioan, zaintzetan, etxebizitza politikan, trantsizio energetikoan... Lurralde bakoitzak bere kabuz pentsatu baino ikuspegi orokorrekin egingo bagenu, ziur nago koherenteagoak eta asmo handiko politika publikoak egiteko gai izango ginatekeela. Honela, zerbitzu publikoen kalitatea hobetu eta herritarren bizitzetan eragin positiboa izango luke.

E.B: Ezin dugu ukatu oso zaila dela, zenbait kasutan, helburu eta egiteko modu oso ezberdinak dituzten eragile politikoak eta sozialak ados jartzea. Zein izan beharko litzateke ezberdinen arteko gutxieneko akordioa estatus berrian aurrera egiteko?

P.O: Uste dugu badagoela oinarriko adostasun bat alderdi politikoaren eta herritarren gehiengoak konpartitzen duena. Euskal Herriaren Nazio aitortza eman behar da, estatuarekin dugun harremana aldebikoa



eta berdintasun printzipioarekin definitu beharko litzateke eta behar-beharrezkoa dugu adostutakoa bete dadin eta atzera urratsik eta higadurarik ez dadin berme sistema bat.

E.B: Normalean aurrekontuak eta fiskalitatea gobernuan dauden alderdiek egiten dute. Entzun dizugu esaten EAEko 2025eko aurrekontuak aukera bat direla. Orain arte, EAJk eta PSEk bazkide bezala, bakardadean sukaldatu dituzte eta gutxitan herritar guztien mesederako. Nola izan daitezke aukera orduan?

P.O: Uste dugu gainditu behar dela politika egiteko modu bat dena konbentzionala eta ez dena gai izan herri hau etorkizunerako ongi prestatzeko. Iruditzen zait kooperazioaren politika praktikatzeko momentua dela. Batetik, EAJ-PSE koalizio formulak ez duelako gehiengorik ez Araban eta ez Gipuzkoan. Bestetik, konbentzitura gaudelako ikuspegi alderdikoia alboratuta eta herri ikuspegia lehenetsita urrutiago iritsi gaitzekela. Gobernuen ardura da gobernatzea eta oposizioarena oposizioa egitea, baina biak ala biak gaude elkarguneak identifikatu eta lantzeraz deituak.

E.B: Zeintzuk izan behar dira EHBren hurrengo urratsak elkarbizitzaren inguruan? Eta gainontzeko eragile politikoak?

P.O: EH Bildu konprometituta dago elkarbizitzaren eraikuntzarekin eta bere esku dagoen guztia egiteko prest ere. III. Kongresurako ponentzia politikoan bertan jasotzen dugu elkarbizitza sustatzeak etorkizun hobea ahalbidetuko digula eta biktima guztiei, elkarren arteko asimetriarik gabe, zor zaizkien aitorten eta erreparazioa barne bilduko dituen lerroa garatuko

dugula. Horrez gain, euskal presoan auzia behingoz konpontzeko erronka ere badugu eta norabide horretan lan egingo dugu. Urriaren 18ko adierazpenaren ondoren esan genuen urrats gehiago etorri behar zirela, alde guztietatik. Gatazka politikoan estatuak izandako jokabidea eta sortutako mina ere aitortua eta erreparatua izatea espero dugu.

“La aportación de EA al proyecto es imprescindible. No se podría entender EH Bildu y su evolución sin EA”

E.B: Luze geratzeko jaiotzen ginen 2012an eta ibilbide arrakastatsua izan dugu orain arte. Norantza goaz EHB bezala? Zer izango gara epe ertainean?

P.O: III. Kongresuan murgilduta dago EH Bildu eta uste dut herri honetan eragin dugun aldaketa politiko eta soziala neurtzeko goizegi izan daitekeela. Urteen poderioz kontzientzia hartuko dugu egiteko gai izan garenaz. Honek esperantza baino ez dio ekartzen ezkerreko independentismoaren proiektu politikoari, gurea etorkizuneko proiektua baita. EH Bildu bezala goaz urrats bat gehiago emateko prestatzera, gobernu ardurak hartzera, herri honek ezinbestekoak dituen akordioak sustatzera eta gure eskaintza politikoa ahal beste sendotzera, herri honentzat tresna erabilgarri bat izaten jarraitzeko.





E.B: EAri buruz orain. Gure helburuak lortzeko, hots, pertsona libre eta askeen Euskal Errepublika lortzeko, tresna eraginkorra izatea nahi dugu. Gure aldetik, nola sakatu dezakegu hobekien norantza horretan EH Bildutik?

P.O: Eusko Alkartasunaren tradizio historikoa ezinbestekoa da EH Bildun. Eusko Jaurlaritzan, instituzio ezberdinetako goi arduetan zein udalgintzan izan den alderdi batek ekarpen ezinbestekoa egiten dio ezkerreko independentismoaren proiektuari. Batetik, metatzeko gai izan den jakintza eta esperientziagatik. Bestetik, herri honen soziologia eta idiosinkrasia- ren zati bat ordezkatzeko duenaren aldetik. EAk guzti hori ematen dio EH Bilduri eta ezin uler liteke EH Bildu eta honen bilakaera EAren ekarpenik gabe.

E.B: Esaten dugu EA gero eta gehiago dela EH Bildu eta, era berean, EH Bildu gero eta EA gehiago dela. Ados zaude? Non ikusten dituzu elkartruke aberasgarriaren ezaugarriak?

P.O: Arnaldo Otegi behin eta berriz dioen moduan: “EH Bildu arrakasta baten istorioa da”. Ezin naiteke adosago egon esaldiarekin. Uste dut lortu izan dugula, hamarkada batean, herri honetako tradizio politiko eta historiko nagusiak proiektu amankomun baten bueltan biltzen. Hiru eremu administratibo eta bi Estatuk zatitutako herri hau bere osotasunean marrazteko gai den egitasmo partekatua gorpuzteko gaitasuna erakutsi dugu. Ateak beti irekita mantenduz gainera, horregatik dugu gero eta jende gehiago biltzeko gaitasuna. Horrek gainditzen du guztiz alderdien logika konbentzionala eta bide ematen dio politika egiteko modu berritzaile eta, demostratzen ari garen bezala, emankor bati.

E.B: Bukatzeko, Pello. Kontuan izanik gure herriarentzat eskuen artean dugun asmo handiko proposamena, nola imajinatzen duzu Euskal Herria 2050. urtean?

P.O: Mundua modu hain azkarrean eta frenetikoan aldatzen doan honetan, zaila da 25 urte aurrera egitea eta zerbait argia irudikatzea. Uste dut hirugarren eraldaketa nazionalaren bidetik etorri daitekeela herri honentzat etorkizun oparoa, herritarren arteko desberdintasunak gainditzeko ahalegin garrantzitsu baten eskutik eta herri honen askatasunaren aldeko urrats sendoak emanda. Gure zentzu komunitarioa indartu behar dugu eta herri ikuspegia lehenetsi, politika konbentzionalena eta alderdikeriak alde batera utzita. Jendea gure egitasmo politikora atxikitu dadin leihoak eta ateak irekitzen jarraitzea dagokigu, gero eta gehiago izan gaitzen, gero eta indar gehiago izan dezagun eta Euskal Herriaren etorkizuna are oparagoa izan dadin.



“Lurralde bakoitzak bere kabuz pentsatu baino ikuspegi orokorra- rekin egingo bagenu, ziur nago koherenteagoak eta asmo handi- ko politika publikoak egiteko gai izango ginatekeela”

Eba Blanco de Angulo
Eusko Alkartasunako Idazkari Nagusia

Pello Otxandiano Kanpo
EH Bilduren bozeramailea Eusko Legebiltzarrean

Basterretxearen giltzarriak. Artea eta kultura, herri baten aberastasun espiritualala



Aitortu behar dut: Néstor Basterretxeari buruzko artikulua bat idaztea eskatu zidatenean, bere jaiotza-aren mendeurrena ospatzen ari garen urte honetan, emozioz bete egin nintzen. Poz handia hartu nuen, zalantzarik gabe, baina jakin badakidanez arlo artistikoko hainbat profesionalak aukera izan dutela artista-aren lana ezagutzeko, aztertze eta horri buruz idazteko, neure buruari galdetu nion: zer esan dezaket nik ni baino pertsona jakintsuagoek esan ez dutenik?

Izan ere, nire doktore-tesirako Bizkaiko Foru Aldundiak Néstor Basterretxeari eskatutako proiektu bat ikertzen ari naizen unean iritsi da eskaera hau. Aipatutako proiektu hori ez zen inoiz gauzatu, baina agerian uzten du artistak bere ibilbide artistiko osoan izan zuen sorkuntzarako maisutasuna. 14 urterekin margotu zuen lehen paisaiatik modu bereizezinean sorkuntza artistikoarekin uztartutako ibilbidea, bidea, bizitza.

Hori dela eta, denbora hartu dut artikuluari nola heldu aztertze. Alde batetik, artista-aren obra oparoaren eta garatutako diziplina artistiko ugarien barruan, beti miretsi izan dut diseinatzaile grafikoaren alderdia; berekin konpartitzen dudana arloetako bat, nire ogibidea baita. Bestetik, ez nituen Basterretxearen mugari artistikoak zerrendatu nahi, horri buruzko dokumentazio ugari baitago dagoeneko. Beraz, modu apal eta laburrean bada ere, Basterretxeak gure herriaren sorkuntza artistikoa eta politika kulturala ulertzeko eta defendatzeko nire modua inspiratu eta horretan eragin duten gaiak aipatzea erabaki dut.

Nahiz eta Eusko Alkartasunako alderdikideak izan, ez nuen Néstor Basterretxea pertsonalki ezagutzeko aukerarik izan. Hala ere, nire ikerketa dela eta, orduak eta orduak eman ditut bere lan batzuk aztertzen eta bere gutun pertsonal eta profesionalak irakurtzen, baita kulturari, arteari, sorkuntza artistikoari, politikari

eta Euskadiri buruz hausnartzen duen idazlanak ere. Horrek, artista ez ezik, pertsona bera sakonago ezagutzeko aukera eman dit.

Alde horretatik, eskerrak eman nahi dizkiot Basterretxea Irurzun familiari, horiek eskuratzeko eta gure herriko artearen erreferentziarik handienetako bat gertutik ezagutzeko aukera ematean erakutsitako eskuzabaltasunagatik.

Néstor Basterretxeak esaten zuen bizitzan badirela une garrantzitsuak, edo berak esaten zien bezala, *“une giltzarriak”*, non topaketa batek erreferentzia guztiak alda ditzakeen. Nire *“une giltzarri”* bat duela hilabete batzuk gertatu zen, eta horrek nire doktoretesia ekarri zuen. Basterretxeari dagokionez, gutxienez bi nabarmendu zituen: bata Jorge Oteiza Buenos Airesen ezagutu zuenean izan zen, eta harekin adiskidetasun handia egin zuen; bestea, euskara sortzea balentria kulturala izan zela argi ulertu zuenean izan zen.

Ohartze hori etorri zen euskara ikonografiarik gabe jaso dugula ikusi zuenean (kultura askotan hizkuntza eta irudiak batera agertzen zaizkigu), eta beti bere buruari egindako eta bere ibilbide artistiko osoa azaltzen duen hausnarketaren ondoren: nola zitekeen Euskal Herriak, oraindik bizirik dagoen herriak, erabiltzen den hizkuntza baten jabe eta nazio-tasuneko sentimenduekin, iraganaren aztarna eskultorikorik ez izatea, beste zibilizazio batzuek ez bezala?

“Euskadin asko dago egiteko. Gure herrian ez da kulturaren arloa aintzat hartu. Kulturaren helburua, herri oso baten aberastasun espiritualala goratzea da”


Horri erantzuteko, 1970etik aurrera euskal nortasun propioa duen obra sortzeko lan egin zuen. Hori dela eta, Mitxelena, Oteiza, Caro Baroja eta Aita Barandiaranekin zalantzak kontsultatu ondoren, eta azken horrek euskal mitologiari buruz egindako ikerketetan oinarrituta, bolumen bihurtu zituen hitzak baino ez zirenak. Osagarri bat, irudi ukigarriak, nolabait hizkuntzarekin batera agertzeko. Néstor Basterretxearen euskara –zeinaren defendatzaile sutsua izan zen– *Euskal Serie Kosmogonikoa* osatzen duten eskulturetan dago, euskal abangoardiaren artearen mugarrria.

Izan ere, Basterretxeak uste zuen artea mundua eraldatzeko tresna zela. Lekukoa zela.


Daniel Giralt-Miracle-k, Bartzelonako Arte Garaikideko Museoren zuzendari ohiak, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako udako ikastaroetan azaldu zuenez, Basterretxearen lana *“bere bizitzaren historiaren eta euskal komunitate kultural, sozial eta historikoaren kide izatearen emaitza da”*; bere herriarekin eta garaiarekin zuen konpromiso kultural, sozial eta politikoa islatzen duen lana, hain zuzen ere. Eta konpromiso horri bizitza osoan zehar eutsi zion.

Basterretxeari buruz aipatu nahi dudan beste alderdi garrantzitsu bat da sortzaileen eta artisten benetako balioa ezagutzen, defendatzen eta aldarrikatzen zuela, baita haiekiko eta proiektu kulturalakiko begirunea eta eguneroko bizitzan, gizartean eta gurea bezalako herri batean duten garrantzia ere. Izan ere, 1980an Eusko Jaurlaritzak hasiberriaren Kultura Sailko aholkulari artistiko izendatu zutenean, Carlos Garaikoetxea lehendakari zela, defendatu zuen, beste hainbat konturen artean, bere bilakaeraz kezkatuta dagoen gizarte orotan aurrerapen kulturala irrika iraunkorrenetako bat dela, zalantzarik gabe. Hori dela eta, euskal gizarteari garapen kultural eta artistiko osorako beharrezko tresnak ematea ezinbestekoa zela aldarrikatu zuen gogotsu. Defendatzen zuenez, ahalegin kulturalak funtsezko bizipenak dira, herri baten nortasuna zehazten duten ezaugarriak baitira.

Aipaturiko gai horietako batzuk *“Politikoa eta artista”* eta *“Politikoa eta kulturala”* idazlanetan agertzen dira. Horietan, besteak beste, gure herriko artearen



Autorretratu (2007). Aldizkari ebakinen collage-a, errotuladorea eta azetatoa kartoi mehearen gainean. 34 x 38,5 cm
© Basterretxea Irurzun familiak utzitako argazkia



Néstor Basterretxea lanean. © Basterretxea Irurzun familiak utzitako argazkia

eta kulturaren bilakaerari buruzko kezkak azaldu zituen: *“Euskadin asko dago egiteko. Gure herrian ez da kulturaren arloa aintzat hartu. Onartu beharra daukagu, tamalez, hala izan dela. [...] ez dago herria baino garrantzitsuagoa den artistarik, ez filosoforik, ez ikertzailek, ez politikaririk... Kulturaren helburua, beraz, herri oso baten aberastasun espirituala goratzea da”*.

Erabat ados nago. Askok dago egiteko. Hitz horiek esan eta ia 40 urtera, bere ideiek, proposamenek eta aldarrikapenek indarrean jarraitzen dute gaur egun, erakundeetatik garatzen diren politika kulturalak eta bizi dugun aldaketa kultural eta artistiko etengabeen garaia kontuan hartuta.

Basterretxeak jakin bazekien. Beti egon zen prest erronka berriei aurre egiteko. Izan ere, hil baino urte gutxi batzuk lehenago, elkarrizketa batean galdetu zioten zer falta zitzaion egiteko, eta erantzun zuen asko geratzen zitzaiola egiteko, sorkuntza artistikoan aldaketa askoko garaia baitzen.

Baliatu dezagun Basterretxeak irekitako bidea eta izandako eredu urratsak ematen jarraitzeko. Gure herriak merezi du.

Eskerrik asko Néstor eman zenigun guztiagatik.

Meritxell Elgezabal Intxaurre

Una marca de país



Comienza una nueva legislatura en el tercio occidental de Euskal Herria. Nuevo tiempo cuajado de intenciones de regeneración de la gestión pública y de apertura hacia nuevos horizontes en lo que se refiere a la institucionalización de Euskadi, sus relaciones con el estado español y su encaje en Europa.

En realidad, asistimos a la recuperación de agendas políticas que tuvieron vigencia e impulso en un pasado, todavía, no tan remoto. El referente más tangible sería la Propuesta de Estatuto Político de la Comunidad de Euskadi que inició su andadura en 2001 en el seno del gobierno de coalición de PNV y EA, liderado por el lehendakari Ibarretxe y surgido de aquella ilusionante marea de los 604.222 votos.

La iniciativa que, bajo la evocadora denominación de *Propuesta del Parlamento Vasco para la convivencia en Euskadi*, fue aprobada en la cámara de Gasteiz el 30 de diciembre de 2004 y lamentablemente rechazada por las cortes españolas el 1 de febrero de 2005, incorporaba unos elementos centrales que no han perdido vigencia y en su definición, el protagonismo de EA fue relevante. Aquí me embarga, cómo no, un recuerdo emocionado de nuestros líderes de aquel momento y, entre ellos, la figura de Sabin Intxaurraga.

El nonato nuevo estatuto de autonomía se basaba en dos columnas: la consideración de la nación vasca como un pueblo de Europa con identidad propia, y el derecho del pueblo vasco a decidir su futuro. Es decir: el derecho de autodeterminación.

Hoy, los términos y los conceptos que afloran en los discursos son muy parecidos. Sobre la base común de considerar la reforma del Estatuto de Gernika como algo que no admite demora, las estrategias, sin embargo, divergen a la luz y en la sombra.

Por un lado, está el manejo de los tiempos y de los hitos intermedios. Nuevo estatuto después de cumplido el proceso de transferencias pendientes del anterior o,

por el contrario, abordaje de una agenda nueva, libre de condicionantes, por entender que, transcurridos 40 años desde la aprobación de aquella ley orgánica, seguir consumiendo energía política en negociar 29 transferencias, todavía pendientes, es un entretenimiento que no nos podemos permitir.

Por otro lado, los alcances. Mera reforma administrativa sin cuestionar el marco de la Constitución del 78, o bien, acuerdo político que determine el tránsito hacia una nueva relación convivencial con España.

La posición de EA siempre ha sido clara. La estación término de todo este proceso; el objetivo final, no es otra que el reconocimiento de la estatalidad de Euskadi.

Posición que se basa en entender que, en el contexto de occidente y de Europa, Euskadi es una entidad social con genio propio, personalidad y cultura. También un espacio económico solvente que necesita para su desarrollo, los máximos instrumentos de autogobierno y representación.

En el tiempo de este potencial nuevo ensayo político está sucediendo la acumulación de fuerza soberanista y de progreso. Hoy, este fenómeno es una realidad con fuerte arraigo social y presencia institucional. Fenómeno de fuerza creciente que permite fijar objetivos ambiciosos a la altura de lo que el país precisa.

“Hay algo que resulta crítico y que en un nuevo estatuto deberá abordarse sin excusas. El modelo centrífugo vigente de territorios históricos ha de superarse”

Como siempre, la contribución de EA en ese espacio apuntará en la dirección de la nación al Estado. Los retos son enormes. Coser el país, buscar su espacio en Europa y articular nuevas reglas de relación con las naciones ibéricas resultan imprescindibles, pero hay algo que resulta crítico y que en un nuevo estatuto deberá abordarse sin excusas. El modelo centrífugo vigente de territorios históricos ha de superarse. Por eficiencia administrativa y, sobre todo, porque la conducción del país hacia nuevos horizontes de mayor autogobierno exige liderazgo político sólido. EA nació hace más de 30 años con una visión clara de articulación institucional interna que hoy sigue vigente. Es nuestra marca. Una marca para un país.

Iñaki Ezkurra Yurrebaso

Ekin etorkizunari!



Erabakitzeako eskubidearen aldeko konpromisoa eta estatus politiko berri baten beharra izan ziren irailaren 22an Zornotzako Zubiondo parkean ospatu genuen Alkartasun Egunaren ardatz nagusiak. Alderdiaren urteroko festak Néstor Basterretxea omentzeko ere balio izan zuen, eragin handiena izan duen euskal artistetako bat, eta afiliatua izandakoa 2014an zendu zen arte.

Ehun lagun baino gehiago elkartu ginen Zornotzan. Hautetsiak, afiliatuak, eta beste alderdietako ordezkariak. Eba Blanco idazkari nagusiak ekitaldi politikoan adierazi zuen *“zume demokratiko nahikoak”* daudela «estatus berri bati buruz hitz egiteko. Estatuarekiko harreman eredu berri bati buruz, non euskal gizarteak bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeako duen eskubidea aitortuko den». Blancok nabarmendu zuenez, Gernikako Estatutua 45 urte baino gehiagoz bete ez izanak *“Estatuarekin hitzartutakoa beteko dela bermatuko duen esparru baten beharra erakusten du”*. Gainera, estatus berriari Euskal Herriaren borondatea errespetatuko dela ziurtatzen duten mekanismoak izan behar dituela adierazi zuen.

“Estatus berriak Euskal Herriaren borondatea errespetatuko dela ziurtatzen duten mekanismoak izan behar ditu”

Eztabaida horretan EAJk jarreraren inguruko zalantzak azaldu zituen Blancok. Idazkari nagusiak adierazi zuen jeltzaleak «bi uren artean» daudela PSOErekin dituzten gobernu akordioak direla eta, eta hor, *“oinex eta eskuez lotuta”* daudela. EAJri exijitu zion zehazteko erabakitzeako eskubidea benetan ofizializatzeko prest dagoen, edo dena eskumenen eztabaida hutsean geratzea nahiago duen. Bere ustez, EAJren adierazpenekin batera, eskubide horrekiko konpromisoa erakusten duten ekintzak burutu behar ditu.

Erabakitzeako eskubideak gehiengoaren babesa du euskal gizartearen artean, Blancok nabarmendu zuenez. Naziometroaren emaitzak aipatu zituen, eta horien arabera, euskal herritarren %60k baino gehiagok babesten dute erabakitzeako eskubidea. Ohartarazi zuen adostasun zabalak garrantzitsuak direla, baina ezin direla bihurtu akordioak lortzeko sine qua non baldintza, posizio minoritarioei beto eskubidea ematen ariko ginatkeelako. *“Denok oso argi izan behar dugun zerbait da, bereziki PSEk eta Andueza jaunak, askotan ahazten baitute gutxiengoan daudela”*.

Además del debate político, aprovechamos la cita para rendir homenaje al artista y afiliado Néstor Basterretxea en el centenario de su nacimiento. Blanco destacó que el legado de Basterretxea, tanto en el ámbito artístico como en su compromiso con la transformación social, sigue siendo un referente para la formación política y para la cultura vasca. *“Su arte nos recuerda la necesidad de contar con referentes propios como nación”*, afirmó.

La familia del artista, representada por su hijo Gorka Basterretxea, recibió como recuerdo una pieza única inspirada en una hoja diseñada por Nestor Basterretxea para el congreso constituyente del partido en 1987. Esta obra, que combina elementos representativos de sus creaciones más reconocibles, simboliza el vínculo entre el artista y el partido.



Gorka Basterretxea eta Eba Blanco



Ikusi hemen ekitaldiaren bideoa

Las emergencias se gestionan mejor desde el territorio



Los efectos de la DANA en el País Valencià siguen siendo visibles y lo serán por mucho tiempo. ¿Qué falló?

Los responsables directos de la emergencia. La Generalitat dirigida por Carlos Mazón. Desapareció durante horas en una comida que no ha sabido explicar y mandó mensajes contrarios a las indicaciones de AEMET. Un completo desgobierno. La Consellera de Interior y la de Industria han sido destituidas, pero Mazón sigue sin hacer autocrítica ni asumir responsabilidades políticas.

Además, vista la absoluta incompetencia de Mazón, el Gobierno español debería haber actuado antes y tener un papel más activo en los trabajos de limpieza y reconstrucción.

En 1983 el lehendakari Garaikoetxea tomó las riendas tras las inundaciones que sufrimos en Euskadi.

Sí. Soy firme defensor de que las emergencias se gestionan mejor desde el territorio. Por mayor conocimiento de la realidad y la idiosincrasia para atajar los puntos críticos y dar respuestas ágiles a situaciones dramáticas. Ahora bien, en efecto, hace falta ejercer ese autogobierno con responsabilidad y sentido de estado. Mazón ha hecho una absoluta dejación de funciones en la gestión de la catástrofe, echando balones fuera e impidiendo actuar rápido a las emergencias.

En 2019, con Compromís en el Consell, convocamos el CECOPI 2 días antes de que empezara la DANA en la comarca de la Vega Baja y como Conseller de Educación, contacté con los ayuntamientos afectados para suspender las clases. Se puede hacer desde el territorio con voluntad política.

Parece que episodios como este van a ser cada vez más frecuentes a consecuencia del cambio climático. ¿Qué podemos hacer?

Adaptarnos a la nueva realidad y abordar políticas decididas de lucha contra la emergencia climática. Para ello debemos ser coherentes en todas las políticas públicas.

No podemos lamentar las muertes y la destrucción por la DANA y a las horas votar retrasar la aplicación del Reglamento Antideforestación Europeo, que precisamente, quiere mitigar los efectos del cambio climático, como hizo la semana pasada el PP en Bruselas.

También me preocupa cómo reconstruimos. Invertir en hacer las mismas infraestructuras en los mismos lugares y con las mismas técnicas es suicida. Necesitamos infraestructuras resilientes. Adaptar las técnicas de edificación para evitar riesgos a la población. Decrecer el urbanismo para tener mayor capacidad de adaptación y respuesta ante episodios climáticos adversos.

En Europa impulsamos la reforma urgente de diferentes reglamentos para redirigir a la reconstrucción de las comarcas afectadas, fondos por valor de 3.000 millones de euros que iba a malgastar el PP.

Precisamente. ¿Qué lectura haces de la situación del Parlamento Europeo?

Es un escenario complejo. Los discursos reaccionarios crecen de forma preocupante. Debemos alzar una voz progresista, verde, conectada con las reivindicaciones de los diferentes pueblos de Europa para combatir discursos de odio. Y presionar a los grupos que amplifican a la extrema derecha. El Partido Socialista ha pactado con la italiana y húngara, entregándoles materias como la gestión de fondos para la reconstrucción, o la salud mental.

En el Parlamento Europeo integráis ALE-Verdes. Con la presidenta de la ALE, Lorena López de Lacalle al frente, defendéis la voz de los pueblos y naciones sin estado. ¿Qué hay que hacer para que ocupemos allí el lugar que nos corresponde?

Desde Compromís abogamos por un mayor reconocimiento de la diversidad lingüística y nacional. Somos activos en la defensa del uso del valenciano en el Parlamento Europeo y es un objetivo realista para esta legislatura. También queremos que continúen los trabajos del Intergrupo de Lenguas en este mandato, e impulsar la reforma de los tratados para que el Comité de las Regiones sea una verdadera cámara de representación territorial y local que legisle.

Hemos abierto en el Estado español el debate sobre la plurinacionalidad. ¿Cómo podemos avanzar?

La mayoría progresista y plurinacional en el Congreso es en sí una oportunidad para avanzar en el reconocimiento de la plurinacionalidad.

Vicent Marzà Ibáñez

Eurodiputado de *Compromís* y forma parte del grupo *ALE-Verdes* en el Parlamento Europeo

Gazteak eta estatus politikoa

Estatus politiko berri bat adostearen beharri buruzko eztabaida piztu da. Egungo markoa 1979an onartutako Gernikako Estatutuak ezarritakoa da. Nola ikusten duzue gazteek?

Markoak estutzen gaitu. Ez dator bat gaur egungo errealitate sozial eta politikoarekin. 1979ko estatutua labor jaio zen eta orain batzuk estatusaren inguruko eztabaida honetan, apaindu nahi dute. Baina hori ez da nahikoa gure herriaren premiei erantzuteko. 79ko estatutua 45 urteren ostean oraindik bete gabe badago, zer ekarriko digu ba estatutu horren eguneraketak? Beste 45 urte itxaron beharko ditugu estatutua betetzeko? 1979an ezarritako markoarekin hausteko momentua da. Burujabetasuna, eskubide sozialak eta Euskal Errepublika ipar izanda.

Gazteak zergatik behar duzue estatus berria?

Gizarte honen etorkizuna garelako. Estatus berriaren adoste honetan badaukagu zer esan. Gure eskubideak bermatzen dituen estatusa behar dugu, eta horretarako burujabetza ezin bestekoa da. Gure errealitateari moldatutako lan baldintza duinak izateko. Zaintza sistema publiko bat izateko. Herritik eta herriarentzat egindako hezkuntza sistema publiko eta euskaldun bat izateko. Burujabetza ez da gure nazio aitortpena murrizten. Burujabetza behar ditugun politika publiko eta sozialak bermatzeko tresna da.

Zeintzuk dira gazteek dituzuen erronka nagusiak?

Prekariatatea. Etxebizitzaren arazoa kronifikatzen joan da, belaunaldiz belaunaldiko arazoa bihurtu arte. Estatus berria gazteon eskubideak bermatzeko tresna bihurtu nahi dugu, eta horretarako etxebizitzaren eskubide subjektiboan sakontzea ezinbestekoa da. Etxebizitzaren krisiak ez gaitu soilik gazteoi eragiten, baizik eta gizartearen eremu zabal bati. Etxebizitzaren eskubide subjektiboa aitortzen duen 2015eko legea, eguneratzeko unea da, eta aldaketa estatu berrian finkatu behar da. Gaur egungo gazteok ezin dugu gure bizi proiektua garatu. Gizarte honetan gure ikasketak bukatzerakoan lan-postu prekarizatueta ohitu garela dirudi, eta honen erruz, inertzia gehiegi normalizatu dira lan eskubideei dagokionez.

Además de en vivienda, ¿puede ser una oportunidad en otros temas?

El nuevo estatus debe estar hecho para el siglo XXI. Desde una perspectiva global, el mayor problema al que nos enfrentamos es la emergencia climática. Esto va a condicionar a las siguientes generaciones y el nuevo estatus también debe darnos herramientas para hacerle frente, sobre todo desde la transición ecosocial. Por otra parte, en clave europea, la preocupante ofensiva reaccionaria y ultraderechista, pone



en riesgo todos los derechos conseguidos hasta ahora con mucho sacrificio. El nuevo estatus debe blindar todo lo conseguido en derechos sociales y humanos para que todas las personas que vivimos y trabajamos en Euskal Herria tengamos una vida digna.

El nuevo estatus, herramienta de la construcción nacional. ¿Qué nación imagináis?

Imaginamos una Euskal Herria más justa, abierta, plural, inclusiva, feminista y basada en la justicia social y el bienestar de la ciudadanía. Construir esta Euskal Herria nos resulta difícil con los límites que nos impone el actual estatuto. Quienes conformamos este pueblo, tenemos el derecho a construirlo como queramos. Nos corresponde tomar decisiones acerca de los temas que nos afectan sin injerencias externas. Para ello es imprescindible un Estado Vasco, porque nos ofrecerá las herramientas necesarias.

“Gazteok estatus berriaren adoste honetan badaukagu zer esan. Gure eskubideak bermatzen dituen estatusa behar dugu”

Galder Agudo Bezi

Gazte Abertzaleak-eko arduraduna

Baleak Elkartea, Philippe Aramendi, Jokin Etxebarria eta Irungo Harrera Sarea, Alkartasuna Fundazioaren saridunak



Euskal kultura, euskararen sustapena eta Euskal Herriaren garapen eta kohesioaren alde egindako lana saritu du beste behin ere Alkartasuna Fundazioak. Baleak Elkartea, Philippe Aramendi, Jokin Etxebarria eta Irungo Harrera Sarearen ibilbideak omendu zituen Baionan egindako ekitaldian.

Hendaiako Baleak Elkarteko kideak izan ziren eguneko lehenengo sarituak. Alkartasuna Fundazioak aintzat hartu zuen elkarteak 1987tik euskal kultura eta hizkuntza sustatzeko egin duen lana. Izan ere, Oihane Olaizola eta Jexux Arzalluz kideek gogorarazi zuten moduan, euskara ikastaroak, bertso saioak, euskal kantutegi herrikoia zabaltzeko jarduerak edota topaketa gastronomikoak antolatuta dituzte urte haueetan zehar.

Jokin Etxebarria fue otro de los homenajeados. Recibió la medalla “Zazpiak bat”, diseñada por Néstor Basterretxea, de la mano de Miren Urreiztieta, coordinadora de Eusko Alkartasuna en Iparralde. La fundación reconoció la labor realizada por el miembro del movimiento en favor de la paz en Euskal Herria. Como coordinador de Ipar Euskal Herriko Harrera Elkartea, Etxebarria trabaja junto a presos y exiliados vascos que han regresado a casa y necesitan recuperar su ciudadanía y reconstruir una vida digna. Al recoger el premio, Jokin Etxebarria recalcó que el trabajo realizado por la asociación es un trabajo solidario.

Philippe Aramendi abertzale historikoa izan zen goizeko hirugarren saritua. Hezkuntza eremuan euskara sustatzeko egindako lanagatik jaso zuen domina. Seaska Ikastolen Elkarteko lehendakari gisa Urruña inguruko eremuan urte luzez egin du ibilbidea, baita Abertzaleen Batasuna (AB) eta EH Bai koalizioko militantziaren bitartez ere, besteak beste. Marie-Christine Daguerre Elizondok hartu zuen saria Aramendi-

ren izenean eta Urruñako alkateak idatzitako testua irakurri zuen. Saria militantzia abertzalearen bidean ondoan izan dituen lagunekin konpartitu nahi izan zuen Aramendik, Euskal Herriak bere geroa bere gain har dezan lanean jarraitzeko deia luzatzearekin batera.

Finalmente, la Fundación Alkartasuna homenajeó el trabajo de Irungo Harrera Sarea. Nacida de la organización solidaria vecinal en 2018, la red ofrece una acogida digna a las personas migrantes que se encuentran en una situación de precariedad y abandono.

Josune Mendigutxia eta Aimar Elgorriaga kideek jaso zuten domina sarearen ordezkari bezala. Saria aurrera egiten jarraitzeko motibazioa izaten laguntzen diela aipatu zuten. Solidaritatea kriminalizatzen den garaian halako aitopenek esperantza mantentzeko balio dutela ere azpimarratuz.

Lorena López de Lacalle, Alkartasuna Fundazioaren lehendakariak ekitaldia ixtearen ardura ere hartu zuen, sarituek herria egiteko burutu duten lana eskertuz. Euskal Herriak harrera duina eskaintzen duen lurra dela azpimarratu zuen, elkartasuna euskal nortasunaren ezaugarri nabarmenetako bat dela gogoraraziz. Barneko mugarik gabeko herrialdea garela aldarrikatu zuen.



Ikusi hemen ekitaldiaren bideoa

Itsas Gudari Eguna 2024: Herrigintzatik naziogintzara

Urteroko hitzorduari ez genion hutsik egin eta Bermeon elkartu ginen martxoaren 3an, Itsas Gudari Egunarekin Matxixako lurmuturreko bataila oroitzeko. Urtero legez, Néstor Basterretxearen *“Matxixakoko gudua”* eskulturaren inguruan burutu zen omenaldia, lore eskaintza eta ikurrinaren igoerarekin.

Ekitaldi nagusia Rakel Goñiren (EH Bilduko Bizkai-ko batzarkidea eta EAko Bizkaiko koordinatzailea) hitzekin abiatu zen. EAJk Urdaibain eraiki nahi duen Guggenheim proiektua kritikatu zuen, Bizkaia eta Busturialderako gobernantza-eredu berri, ireki eta parte-hartzailea aldarrikatuz. Ondoren *“Herrigintzatik naziogintzara”* mahaingurua burutu zen, Nadia Nemeh (Bermeoko alkatea), Idurre Bideguren (Bermeoko alkate ohia eta EH Bilduko senataria) eta Naiara Fernandez (Bermeoko zinegotzi ohia eta EH Bilduko legebiltzarkidea) parte hartzearekin.



Ikusi hemen ekitaldiaren bideoa

Bilboko Autonomia kalea bete genuen berriz ere nazioa garela aldarrikatzeko

EH Bilduk deituta, *“Nazioa gara”* lelopean mobilizatu ginen azaroaren 23an Bilbon. Urtero bezala, Autonomia kalea jendez lepo bete zen herri txiki hau nazio handi bat dela aldarrikatzeko. Izaera hori aitortuko duen estatus berri bat garatzeko momentua dela argi utzi genuen Bilbon elkartutako milaka lagunok. Herri mobilizazioarekin batera akordio zabalen beharra ere aldarrikatu genuen manifestazioarekin. Espainiar Estatuko hainbat puntuetako kideen presentzia ere nabaria izan zen Bilbon. Besteak beste, Compromiseko eurodiputatu den Vicent Marzà Valentziar Herrialdetik. ERCKo idazkari nagusia, Marta



Rovira ere izan genuen bidelagun, hala nola Ruben Cela, BNG ordezkatzuz, nazioarteko harremanetarako arduradun bezala.

Alkartasuna Fundazioa presente en el Fórum Soberanista de Barcelona

Alkartasuna Fundazioa participó el pasado septiembre en el Fórum Soberanista, un punto de encuentro de las fuerzas soberanistas de izquierdas celebrado en Barcelona. La delegación, encabezada por la presidenta de la Fundación Lorena López de Lacalle, pudo dialogar con representantes de una veintena de fundaciones, asociaciones políticas, sindicales y culturales. Se trata de un foro para la reflexión y el debate que sirvió para coordinar iniciativas para el reconocimiento de la plurinacionalidad en el Estado y la defensa de los derechos de las lenguas minorizadas. Asimismo, se abordaron estrategias con las que hacer frente al neoliberalismo, la extrema derecha y la xenofobia.





alkartasuna
fundazioa

alkartasunafundazioa.eus • info@alkartasunafundazioa.eus



@alkartasun



euskoalkartasuna.eus • info@euskoalkartasuna.eus



@ealkartasuna



@euskoalkartasuna

ARABA

San Frantzisko kalea, 22 • 01001 • GASTEIZ
Tel. 945 23 27 62
araba@euskoalkartasuna.eus

BIZKAIA

Areatza, 2-3 • 48005 • BILBAO
Tel. 94 416 10 33
bizkaia@euskoalkartasuna.eus

GIPUZKOA

Portuetxe Bidea, 23 • 20018 • DONOSTIA
Tel. 943 02 01 30
gipuzkoa@euskoalkartasuna.eus

NAFARROA

Plaza del Castillo, 49 - 1º • 31001 • IRUÑA
Tel. 948 22 06 91
nafarroa@euskoalkartasuna.eus

IPARRALDE

34 Rue Pannecau • 64100 • BAIONA
Tel. 05 59 25 50 98
iparralde@euskoalkartasuna.eus